

# ZOZKETAREN OINARRIAK

## 600 HP LC 100W KAMERAREN ZOZKETA

### LABORAL Kutxaren 2017ko LK-Pay kanpaina

---

#### 1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean, LABORAL Kutxa; helbide soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate (Gipuzkoa)– 600 HP LC 100W kamera zozkatuko ditu.

#### 2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraiki antolatu da, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

#### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta LABORAL Kutxaren mugikor bidezko ordainketa-zerbitzua behin gutxienez erabiltzen badute, 2017ko abenduaren 26tik 2018ko otsailaren 28ra bitartean. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

#### 4.- Zozketa

2018ko martxoaren 12an egingo da zozketa, ausazko sistema informatiko bidez, kanpaina-aldiaren barruan –2017ko abenduaren 26tik 2018ko otsailaren 28ra bitartean– baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean.

Horrez gain, zozketan ordeko 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleetako batek baldintzak betetzen ez baditu ere. Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz, 10 egun balioduneko epean saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago, saria lehen ordekoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

#### 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

600 HP LC 100W ekintza-kamera zozketatuko dira. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

#### 6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko PFEZri buruzko arautegiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

#### 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutxari baimena eman behar dio bere izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordekoari emango zaio.

#### 8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Oinarriok hemen kontsulta daitezke: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus).